

## GABONETAKO KANPAINA

### “BIRMANIARAKO BAKE-OPARIAK”

#### BIRMANIA POR LA PAZ / BIRMANIAKO BAKEAREN ALDE

2009ko urriaren 15etik abenduaren 1era

*Birmania Por La Paz / Birmaniako Bakearen Alde*, herrialde horretan giza eskubideak, demokrazia eta bakea lortzeko lanean diharduen Gizarte Ekimen eta Laguntza Humanitarirako erakundea da. Birmania bakean eraiki dadin lortu nahi duten pertsonak osatzen dute elkarteak, munduko 30 herrialdetan baino gehiagotako pertsonak. Birmanian bakea lor litekeela uste dugu, eta hori diktaduraren kontra aritzea baino gehiago dela. Horregaitik ari gara bakea, berraskiditzea eta demokrazia bultzatzen, kooperazioaren eta elkartasunaren bidez, eta Birmania eta munduko herrien arteko elkar-ulertzea bultzatuz.

Thai Burma Border Consortiumek Espainian duen kide bakarra da *Birmania Por La Paz / Birmaniako Bakearen Alde* elkarteak. Eta gure konpromisoa da, muga inguruan bizi diren 140.000 errefuxiatu birmaniarrek elikagai eta arropaz hornitzea. Gure ekimeneren helburu eta kide diren Birmaniako kide zibilen partehartze aktiboa ere bultzatzen dugu, modu horretan egin litekeelako bertako pobrezia eta gizarte desberdintasunen kontra eta garapen ekonomikoaren alde.

“Birmaniarako bake-opariak” kanpaina ondorengo erakunde hauek bultzatzen dute, Birmaniako Bakearen Alde elkarteaz gain: **Oficina por la Pau i els Drets Humans de la Generalitat de Catalunya-k, Cooperació i Desenvolupament de la Generalitat de Catalunya-k, Eusko Jaurlaritzak, Decoexsa-k, MRW-k eta Thai Burma Border Consortium-ek**. Gabonetan eta Erregeketan, 10 urte arteko umeentzako arropa, jostailuak, eskolarako materialeak edo higienerako gaiak jasoko dira, gehienez ere bi kiloko pisuko paketetxoetan.

Estatu osoko neska-mutikoek ume errefuxiatu birmaniarrentzako opariak prestatzea da helburua eta barruan eurek egindako marrazki edo idatzitxo bat sartzea. Herrialderik ere ez duten milaka ume horiei, Gabonetan sikiera, mundua eurekin dagoela adieraziko diegu. Beste ume baten oparia jasotzea, izan ere, munduaren bestealdean berarekin akordatu den pertsonaren bat badela sinesteko modua izan liteke.

Birmaniako Bakearen Alde elkartetik lortu nahi dugu errefuxiatu birmaniarrek izan dezaten ilusio apur bat eta esperantza gehiago, eta sentitu dezaten munduak ez dituela ahanzi. Horregaitik nahi dugu bultzatu eskutitz goxo bat jaso dezaten hango ahalik eta ume gehienek. Oparitxo bat prestatuz, gure umeak ume birmaniarren azalean jar daitezela lortu nahi dugu.

Horregaitik eskatzen dizugu laguntza elkarte edo herritar soil gisa “Birmaniarako bake-opariak” kanpainan ahalik eta bitarteko gehienaz parte har dezazun.

Aidetasunez,

Concha Pinós. Kanpainako zuzendaria  
[www.birmaniaporlapaz.org](http://www.birmaniaporlapaz.org)

## PARTE HARTZEKO IDEIEN ZERRENDA

Parte hartzeko ideia batzuk, hemen:

**Eskolarako materialea:** arkatzak, kuadernoak, ezabagomak, estutxeak, orriak, testurik gabeko margotzeko liburuak, karterak, kirol-poltsak...

**Eskulanak:** Tenperak, margoak, papera, buztina, koloretako paperak, gometxak, punta borobildun goraizeak...

**Oinarrizko higie materiala:** hortzetako eskuilak, hortzorea, orraziak, eskuilak, xaboiak, koloniak, eskuoihalak...

**Osasun materialea:** tiritak, erabilitako betaurrekoak, konpresak, pixohialak, termometroak, kotoia... Botikarik ez.

**Arropa eta oinetakoak:** udarako aproposak direnak (kamisetak, galtzak, soinekoak...) bururako zintak, diademak, lepokoak, ilerako gantxoak...

**Jostailu txikiak:** panpintxoak, pilotatxoak, eraikuntza joko enkajableak, puzzleak, kotxe txikiak, mahai-jokoak, txontxongiloak...

## EZ BIDALI

Botika, isurtzeko moduko likidoak; kristalezko, keramikazko edo hauskorra den beste materialerik, erasokorra gerta litekeen ezer, ezta jatekorik ere (txokolatea, goxokiak, gailetak...)

## ZURE OPARIA NOLA PRESTATU

Pentsatu, aurrena, nori helarazi nahi diozun oparia: neska edo mutila den, zein adinetakoa... Eta informazio hori idatzi pegatina batean gero opariaren kanpokaldean itsasteko. Honela:

Niña o Niño  
0-2 urte  
2-4 urte  
4- 6 urte  
6- 8 urte  
8- 10 urte

Zer opari eta nori bidali erabaki duzunean, aukeratu kaxa, gutunazal edo paper polit bat. Opari eder-eder bana jasoko dute ume birmaniarrek!

Gomendioen zerrendatik aukeratu gauzatxo batzu: gauza errazak, berriak edota zureak izan eta erabiltzen ez dituzunak Pentsatu errefuxiatu eremu batean bizi den haur batek zer izan dezakeen gustoko. Gehitu zuk sortutako zerbait: marrazki bat, olerki bat edota mezu bat. Gogoan izan bi kiloko paketea behar duela izan. Bidali ezin litezkeen gauzen zerrendan agertzen den ezer ez sartu.

Etiketa itsatsi eta bidali paketxoak kanpainarako prestatuko diren bilketa guneetara. Hemen dituzu:

[www.birmaniaporlapaz.org](http://www.birmaniaporlapaz.org)

Eta gogoan izan: bete ezazu kutxa maitasunez, bakeaz eta ilusioz, errefuxiatutako ume birmaniarrek izan dezaten aurki herralde aske eta baketsu bat.

## **NORA BIDALIKO DUGU ZURE OPARIA**

Zure oparia Thailandia eta Birmaniara joango da, eta baita Birmania barruko Karen eskualdera. TBBCen errefuxiatu eremuetan eta oihaneko eskoletan banatuko dira.

## **NOLA JAKIN NERE OPARIA HELDU DELA**

Zure opariak eskura emango dituzte profesionalek Birmanian bertan. Aurrena, MRW mezulari zerbitzuan jasoko dira, eta handik Bartzelora Portura eramango. Bertatik, Bangkokera bidaliko du DECOEXSAk, Nazioarteko Merkantzia Garraio eta Logistika Enpresak.

Bangkoketik, TBBCk eta errefuxiatu eremuen gestioaz eta oihaneko eskolen kudeaketaz arduratzen diren erakunde birmaniar zibilek banatuko dituzte. 25 urtetik gora daramatzate mugan lanean.

## **NOIZ IRITSIKO DA**

Kanpaina azaroaren 30ean itxiko da eta itsasontzia abenduaren 1ean abiatuko da Bangkok-era. 28 egun egingo ditu itsasoan. Opariak 2010eko urtarrilaren 3tik 5era banatzea aurrirakusten dugu.

## **INFORMATUTA JARRAITU NAHI DUT**

Hala bada, bidali iezaguzu mezu bat [birmaniaporlapaz@yahoo.es](mailto:birmaniaporlapaz@yahoo.es) helbidera. Jakinaraziko dizugu nola ari den kanpaina gauzatzen edota erantzungo ditugu zure galdera eta zalantzak.